

## Euskara batua dela eta

Euskara batua dela eta, gauza harrigarriak irakurtzen ditugu. Batuak bidea ireki duen heinean, badirudi zenbaitek beren buruak aurrelariatzat jarri nahi dituztela, gauzak nola bideratu ziren jakin gabe. Baina Euskaltzaindiaren agiriak behar bezala irakurriko balituzteke, zentzu ho-beaz agertuko lituzteke beren iritziak.

Euskararen batasuna askoren lana izan da. Ideiak, aspalditik hor zetozen, Euskaltzaindia sortze garai beretik. Hori bai zen erakundearen eginkizuketariko bat. Oroi, gai hortaz Pierre Broussain eta Arturo Campión jaunei eskatu zitzaaien txosten hura, haiek "Informe a la Academia de la Lengua Vasca sobre la unificación del euskara" izenburupean aurkeztua (*Euskera*, III, 1922, 4-17 orrialdeetan argitaratua).

Baina, gu baino zaharragoek ziotenez, oinarri horietatik aurrera jokatea nekeza omen zen, aldi hartako garbizaletasunagatik (garbikeria esango nuke nik) inor ausartzen ez zelako. Hortaz, irakurtzekoa da Azkue berak aurkeztu zuen txostena: "Euskeraren batasunaz (iritzi guztien laburpena)", (*Euskera*, III, 1922, 123-132. orr.).

Denborarekin, Azkue bera izan zen, bere kaxara, "Gipuzkera osotua" proposatu zuena (*Euskera*, XV, 1934, 159. or. eta XVI, 1935, 151-184 eta 288. orr.). Eta hori izan zen gerrate ondorean gehienek oinarritzat hartua.

Imanol Murua Uriak azken *Jakin* aldizkarian "Federiko Krutwigi elkarriketa" deritzan haretan (ikus, *Jakin*, 101. zenb., 61-75. orr.) agertzen da F. Krutwige berak ezagutu zuen gerraondoko Euskaltzaindiaren zenbait gora-behera, bereziki 67-75. orrialdeetan. Zuzenki ez nuen ezagutu aldi hura, baina bai argitaratzen zituzten batzar agirien bidez. Zuzenago dakidana, zera da, 1957an urgazle izendatu nindutenetik hasi nintzen hileroko batzarretara joaten eta batzarrak euskaraz egiten zirela.

Ezer gutxi edo batere ez dio aurrekoek, hobeto esan, hasierakoek batasunari buruz egin zituzten proposamen eta asmoez. Beharrezkoak ez ote? Ai, baina bakoitza bere belaunaldikoa izaki. Baina erakunduen erroek sakonago eta zabalago ez ezik urrutiagora garamatza. Erakundearen egitura ezagutzeko, lehen oinarrietatik hasi beharra dago.

Bakoitzak bereak kontatzekotan, guziok dugu zerbait esan beharra. Ni ere, aurkitu nuen Euskaltzaindiaz mintza nezake, hileroko batzarrak ba-

koitzak zekarren txostenera mugatzen zenekoa, beste egitekorik ez baze-  
goen bezala. Hori bai, aipatzen dituen tira-birak gaingidurik ziren non-  
bait. Zeren hor azaltzen zuena hala bazen, gehiago zirudien talde politi-  
karen baten babesaren edo kontrola behar beharrezkoa zuen erakundea  
zela. Baina ni sartu berrian, euskararen egoera larriaren aurrean ekintza  
praktikoen egitura beharra ikusten nuen eta behin baino gehiagotan pro-  
posatu ere bai.

Ordurako, Krutwig adiskidea herbesteratua zen. Hala ere, itzultzean  
Euskaltzaindia nola aurkitu zuen galdetzean: "Tamalgarria. Ez dute kul-  
tura zabalik euskaltzainek" zioen (97. or.). Egia da inork ez dakiela guz-  
ia, baina guretariko inork pentsatzen badu berak baietz, zalantzan jarriko  
nuke. Hortaz argitu beharrezkoa, zera da, erakundea zertarako den, eta  
hori erakundearen sorkuntza beretik arautegiak berak erakusten digu.  
Zer da beraz "kultura zabala"? Hori ez ote da unibertitateentzat? Eta  
hala ere, ez ote bakoitzak bere eremuan?

Euskaltzaindikoek jakin behar dutena, sortzetiko arautegiaren arabe-  
ra, beraien eremua euskara ikertzean, zuzpertzten eta indartzen oina-  
ritzen dela. Politikagintza talde bakoitzaren esku utziz. Hori ez bai da  
Euskaltzaindia bezalako erakunde bati dagokiona.

Sentitzen dut hau esan beharra, baina gehien gehiengoan bere garai-  
ko bitxikeria besterik ez zekarren elkarrizketaren harian eta, gauza han-  
ditzat, nork eta *El Diario Vasco*-k 1997ko urriaren 16. orriaren eman zion  
kantzaxa. "Historia bizia.." omen *Jakin*-goentzat, nik "bitxia" diodanari.

Besteok ere badugu zer esanik, zeren gerraondoko lehen urteetako une  
haiek bakarrik ez bai dute egiten erakundearen historia. Duela hogeta-  
mar urte, urgazle izendaturik sartu nintzenez, Juan Irigoienek ez zuen  
kontrolatzen Euskaltzaindik, deitura bereko beste batek baizik. Eta al-  
perrikakoa zitzaidan hari elkarlanean aritzeko eraz mintzatzea, batez ere  
lanerako ekintza egituren antolaketa eskatzea, jokabideak berriztu beha-  
rra zegoela eta abar, erakundeak berari zegokion lana ahalik egokien  
bete zezan. Krutwigek aipatzen dituen aurreko gertakari haiegitatik edo  
hertsirik aurkitzen nuen bere burua.

Koldo Mitxelena, kulturaz bazen norbait, hizkuntzaz jakituna zer esa-  
nik ez, eta argi bezain zuhurra gauzak laster ulertzen. Beragana jo nuen  
nire asmoak agertuz eta bai aguro jabetu ere. Gure hizkuntza larri ikus-  
ten zuen eta zerbait egin beharra berpiztu nahi bagenu, une haietan le-  
gez egin genezakeanaren barnean. Gairik premiazkoenatarako, ahal zen  
neurrian, batzordeak antolatuz elkarlanean aritzea onartu zuen. Gero  
ohartu nintzenez, asmo horregatik nonbait, hortik sortu zitzaiola bere pro-  
posamenez ni euskaltzain oso izendatzea. Izendatu eta laster egin nindu-  
ten idazkari eta une berean hasi lan egitura berriztatzen, zenbait gai  
garatzeko batzorde lanak sortuz. Idazkariordezko alogeratuagandik traba  
besterik ez nuen aurkitu. Sinestea ere. Baina eskerrak luzaroragabe J. L.  
Lizundia sartu zela idazkariorde, eta poliki-poliki gauzak gure asmoetara

bideratu. Euskera agerkaria lekuko, batzar agiriak irakurri besterik ez dago ordutiko abantailaz ohartzeko.

Zer da ba erakunde bat, bere bete beharrak aurrera eramanez? Aldian aldiko moderi jarraituz, ez da gaizki greko-erromarrez gainera induisismoaz, maxismoaz edo konfusioez mintzatzea, baita horietaz ikerketak egitea ere. Baina prediku horiek beste alor batekoak dira. Hori izan daiteke jakituria, ez dut ukatzen, baina ez gure erakundeari dagokion jakintza. Nire ustez, erakunde batek berari dagokiona arauz eta zentzuz bete beharra du.

Haatik, aurrekoek ez bezala antolatu genituen lanerako batzordeak, bertsolari txapelketak antolatzeke, alfabetatze eta euskalduntze ekintzetarako (ikus hontaz, *Egan* aldizkariaren 1996ko 171-172 eta 247. orrialdeetan eman nituen argitasunak), itzultzaile eskola, hiztegi gintza, gramatika eta abar bultzatu ahal izan zirela.

Euskaltzaindiak, garai bakoitzean ahal bezala bete izandu bere egitekoa. Sortu zenetik bertatik, garai bakoitzeko politiko agintariegandik ez du izan harrera berdina, ez da gutxiagorik ere. Adibidez, Primo de Ribera generalaren "dictablanda" hartan oztipoak izan zituen eta Franco-ren diktadurapean, gorrien kontra altxatu zenagandik gorriak franko ikusi beharra. Politikaz nahastu gabe euskararen alde zintzo jokatu zuen Azkue handia izan ez balitz, Euskaltzaindia desegingo zuten. Bizkaiko Diputazioak Calle Iturrino fantoche harek Juan Irigoien bitartez kontrolatzen saiatu ez bazen, egia da behar bada gauzak hobeto aurreratuko zirela. Puntu horietan interesgarriak dira Krutwigek kontatzen dituenak, izendapen berriak ere taxuz egin zituzten garai haretan, baina ez zuten jakin egitura minimum bat lortzen. Bakoitza bere mundutxoan zebilen. Euskararen batasuna? Hori zen gakoa. Gehienak Azkueren *Gipuzkera osotua* eredu, eta beren ustez jakitunago ziren haiek, bakoitza bere euskalki narrazagoan edo garbikerizkoagoan. Beren uesteko lapurtera klasikoan zebilenik ere bazen, lapurtarren parregarri. Bide asko ziren, buru adina aburu, baina euskara batura zentzuz eramanez ahal izatekorik ez.

Anarkia horren ondotik etorri zen Baionako zina edo mezua, hango biltzarren erabakiz (1964.eko abuztuaren 29-30.etan). Geroago, 1967.eko abenduko batzarrean Iruñean erabaki zen, Euskaltzaindiaren urre eta itziak zetozela eta gai monografiko bat aukeratzea. 1968ko urtarrilekoan Bilbon euskara batua gai nagusitzat hartzea erabaki zen. Besteak beste, G. Aresti sutsu aritu zen horren alde, baina gehienek iritzia zen gai hori aurrera eramatearen aldeko. Ondorean, lehen urratsak emateko, lanerako batzordeak antolatu ziren. Eta, era askotariko iritziak zebiltzanez, gaia bideratzeko buru baten premia ikusten genuen eta euskaltzainburu zen Manuel Lekuona berak eskatu zuen K. Mitxelena hautatzea, hizkuntza jakintzaz gizonik aukerakoena iruditzen zitzaizolako, eta ahobatez onartu zen. Bere egitekoa, euskara idatziaren batasuna hauta gai, txostena aurkeztu behar zuen izendatuko zen batzordearen buru bezala.

Euskaltzaindiaren asmoen lagungarri, Durangoko "Gerediaga" elkar-  
teak euskal idazleen batzarra eratu zuen Ermuan, 1968ko ekainaren 28,29  
eta 30.erako, idazleen iritzia jaso eta aztertzeko. Bilera hartako gaiak eta  
elkarrizketak ikus *Jakin* (Maiatza-Urria, 1968), 31-32. orrialdeetan. Beraz,  
gauzak ez ziren burutu nolanchi. Guzi horiek kontutan harturik bildu gi-  
nen Arantzazun 1968.eko urriaren 3tik 5era. Batasun eta urre eztaiei bu-  
ruz, ikus *Eusker*a-n "Arantzazuko bilerak", XIII, 1968, 137-265. orr eta XVI,  
1971, 5-107. orr. Oinarrizko agiriak hor daude, une bakoitzeko lekukotasu-  
nez. Idazkari nintzen aldetik, buru austerik nahiko izan nuen ahal bezala  
bideratzen.

Ideak eta ekintzak hor zeuden 1922.etik 1971era arte. Arantzazuko agi-  
ria, hara agertu ziren euskaltzain guziek aho batez onartua izan zen. Gero  
zeharka eta azpijanez, alde batetik eta bestetik, borrokaldiak sortu zire-  
la? Hori beste kontu bat da. "Urre eztaien kronika" hartan argi azaldu  
nuen: "Batasuna, Mitxelenak bere txostenaren sarreran zion bezala, guz-  
tiok amore emanez egin behar den gauza da", (*Eusker*a, XVI, 1971, 10. or.).

Ondoko eztabaida setatiegatik, "Arantzazuko agiria" *Eusker*a, XIII, 1968,  
50. orrian argitaratu zena, *Eusker*a, XVI, 1971, 99-100. orr. berrargitaratu  
genuen. Bigarren hontan, han ahobatez onartu zuten euskaltzainen ize-  
nak gehituz. Aldi berean gaztelerazko itzulpenarekin, zeren asko erderaz  
aritzen bai ziren alde edo kontra azalduz.

Gero, zenbait euskaltzain eta idazle elkartekoak bildu ginen Eibarren,  
Arantzazun gomendioz onartutakoaren alde. Ikus *Batasunaren kutxa* (Lur  
editoriala. Donostia, 1970).

Bestalde, Arantzazun ahoz aipatu zena, zera zen, idazleek erabileraz  
zer bide hartzen zuten jakiteko zortzi edo hamar urteko epea beharko  
genuela erabaki zehatzagoetara iritsi nahiko bagenu. Horregatik antola-  
tu zen Bergarako bilera 1978ko irailaren 4tik 8ra (ikus, *Eusker*a, XXIII, 1978,  
427-881. orr.). Sarrerako hitzaldian Fr. L. Villasante mintzatu zen zenbait  
argitasun eskainiz, bereziki 453-456. orr. batasunaren historiaz. Ondotik  
Mitxelenak, agertu zuen txostenean, 467-477. orr., nahiko argi jartzen zuen  
nondik nora gindoazen.

Bergaran era askotariko proposamenak egin ziren, guziei entzun  
zitzairen. Baina Siadeco-ren estadistika lanean oinarriturik Martin Ugal-  
de, Joan Mari Torrealdai eta Xabier Mendiguren jaun idazleek, azken  
hamar urteko liburu eta irakaskintzako jarrera zehatz-mehatz azaldu zu-  
ten. Uste dut aski izan zirela arazoak gainditzeko. Eta ikus amaierako  
"Adierazpena" zeritzan agiria (*Eusker*a, XXIII, 1978, 866. or.).

Jakintza, alor eta sail bakoitzari dagokion langintzan erakusten da eta,  
euskararen batasunean, Euskaltzainditik begiraturik, inork uka ezi-  
nezkoa zaigu askoren lana eta Koldo Mitxelenaren gidaritzza izan zirela  
nagusia.

Juan San Martin